

58/2001 DEKRETUA, martxoaren 27koa, merkataritzagune handiak ezarri, aldatu eta handitze-koa. (Hutsen zuzenketa, EHAA 114 ZK., 2001/06/15)

Euskal Autonomia Estatutuak (3/1979 Lege Organikoak onartua) 10.27 artikuluan ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusiboa barne merkataritzaren arloan. Hala ere, kontuan izan behar da prezio politika, ondasunen zirkulazio librea eta eskumenaren defentsari buruzko legedia.

Estatutuko aurreikuspenen hori garatzeko, Eusko Legebiltzarrak Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea onartu zuen. Lege horretan lehen aldiz ekin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza azalera handiak ezartzeko baldintzak arautzeari. Lege hori garatzeko 82/1995 eta 5/1998 Dekretuak eman ziren, urtarrilaren 31n eta urtarrilaren 20an, hurrenez hurren. Haien eragin nagusia izan da gure inguruko merkataritza banatzearen modernizazioaren lehenengo hedapenaldiari babes ematea.

Duela gutxi, azaroaren 10eko 7/2000 Legeak 7/1994 Legea aldatu du zati batean. 7/2000 Legeak egiten duena da merkataritza banaketako sistemen garapena arautzeko bigarren fase bat aurreikusi, eskaintza egonkortzetik abiatuta eta Euskal Autonomia Erkidego osorako merkataritza ekipamendu maila egokia lortu ondoren. Izan ere, horrek gaien eskaintza bermatzen du, kalitate, aukera, zerbitzu, prezio eta ordutegi aldetik baldintza onetan, betiere gaur egungo egoeraren araber, eta txikizkako merkataritzaren garapen eta modernizatzeko joerekin batera.

7/2000 Legea garatzen duen Dekretu honek lau kapitulu bereizi ditu merkataritzagune handiak ezartzeko baldintzak arautzeko. Batetik, "merkataritzagune handi" zer den definitzen du; bestetik, lizentziak emateko prozedurak ezartzen ditu; hirugarrenik, lizentziak iraungitzeko edo ezeztatzeko baldintzak ezartzen ditu; eta, azkenik, Merkataritzagune Handien Batzorde bat sortzen du.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak martxoaren 27ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

MERKATARITZAGUNE HANDI BATERAKO LIZENTZIA

1. artikulua.– Merkataritzagune handia.

1.– Merkataritzagune handitzat joko dira ondokoak:

a) 5.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 400 m²-koa edo handiagoa badute.

b) 5.000 eta 10.000 biztanle arteko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 800 m²-koa edo handiagoa badute.

c) 10.001 eta 24.999 biztanle arteko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 1.000 m²-koa edo handiagoa badute.

d) 25.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietako txikizkako merkataritzarako establezimenduak, baldin hasi zirenetik, edota handitzeen ondorioz, jendearentzako salmenta esparrua 2.000 m²-koa edo handiagoa badute.

2.– Merkataritzagune handitzat hartuko dira beti azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 3. paragrafoan azaltzen diren txikizkako saltokiak.

3.– Ez dira merkataritzagune handitzat hartuko azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 4. paragrafoan azaltzen diren saltokiak.

2. artikulua.– Salmenta esparrua.

Jendaurreko salmenta-esparrutzat hartuko dira jarduera komertzialerako beti edo noizbehinka erabili ohi direnak. Dekretu honetan ezarritako ondorioetarako, esparru komertzialtzat honako hauek hartuko dira: produktuak jendaurrean erakusteko eta erosteko esparruak, eta produktu komertzializagarrietara eta erakusleihotara iristeko behar diren igaro-lekuak.

Gainera, jendearentzako salmenta esparrutzat joko dira merkataritza jarduerari zuzenean lotutako zerbitzu osagarriak emateko guneak: probagelak, diru-kutxen edo alarmen lerroen eta irteeraren arteko azalerak, betiere bertan zerbitzuak eskaintzen badira edo produktuak aurkezteko erabiltzen badira, eta establezimenduko kanpoko eremuak ere bai, produktuak jendaurrean jarri edo jarduera komertziala badago.

Salmentako esparrua 2.500 m² baino gehiagokoa duten saltoki handietan neurtutako azalaren % 5 murriztuko da aurreko paragrafoan ezarritako moduan, eta emergentzia egoeretan ebakuazioa errazteko diren eremu ez-komertzialtzat joz.

Eskailerak, igogailuak, aisialditarako azalerak, elaborazio zerbitzuak, konponketak, sorospen teknikoa, produkzioa eta biltegiatzea ez dira hartzen salmenta esparrukotzat, ez bada salmentarekin lotuta egon ohi direla eta ez dutela jendearentzako sarrerarik.

Izaera kolektiboko saltokietan ez dira jendearentzako salmenta-esparrutzat hartuko aisialdirako eta errestituziorako guneak edota saltokietara sartzeko korridoreak, betiere haietan merkataritza jarduerarik egiten ez bada.

3. artikulua.– Saltoki handiaren lizentzia.

1.– Merkataritza lizentzia eskatu beharko da azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 1. paragrafoan azaltzen diren kasuetarako.

2.– Horren haritik, uste da saltoki handi bat zabaltzen dela, honako egoeraren bat gertatzen bada:

a) Jendeari saltzeko esparrua 500 metro karratutan edo gehiagotan handitzea.

b) Handitze horrek berak bakarrik edo aurretiko beste batzuekin batera, salmenta esparrua % 20an baino gehiagoan gaitzen badu saltokia ezarri zenean zeukan neurria.

Handitzeko beti beharko da lizentzia, baldin eta ondorioz dekretu honetako 1. artikuluan aipatutako esparrua lortzen bada.

3.– Lizentzia baduten saltokiek ez dute lizentzia komertzial berririk eskatu beharko kokagunea aldatzeko edo jarduera lekuz aldatzeko, betiere kokagunez edo lekuz aldatzeak handitzea, jarduera komertziala aldatzea edo eskualdez aldatzea ez badakar.

4.– Saltoki handiak zabaltzeak eta lekuz aldatzeak ez badute behar lizentzia komertzialik, hala diotelako aurreko paragrafoetan jasotako irizpideek, merkataritza gaietan Eusko Jaurlaritzan eskumena duen Sailari jakinarazi beharko zaizkio hilabeteko epean, udal lizentzia ematen denetik aitzina. Zabaltzeak berarekin dakartzan eraginaren eta edukiaren egiaztagiriak erantsi beharko dira edo, lekuz aldatzen bada, kokaleku berriaren egiaztagiriak; eta baldintza bat izango dute: dagokion eskualdean azalera librea egotea.

4. artikulua.– Merkataritza arloko Eusko Jaurlaritzako sail eskudunarentzako jakinarazpena.

Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 6. paragrafoan azaltzen diren kasuetan, nahitaez jakinarazi beharko zaio merkataritza arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailari.

5. artikulua.– Lizentziak emateko irizpideak.

1.– Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoei jarraiki emango edo ukatuko dira saltoki handietarako lizentziak.

Ondorio horietarako, merkataritza ekipamendu egokitzat joko da biztanleriarentzat, eta epe ertainerako aurreikusitako biztanleriarentzat, kalitate, aukera, zerbitzu, prezio eta ordutegi baldintza egokiak dituzten gaien eskaintza bermatzen duena, betiere dagokion eskualdeko egungo egoera eta txikizkako merkataritzaren garapenaren eta modernizazioaren joerak kontuan izanda.

2.– Bezeroen premiei erantzuteko, I. eranskinean jasotako eskualde bakoitzari gehienezko salmenta- esparrua izendatuko zaio saltoki handiaren bidez, honen ondoren jasotzen diren tipologia eta sektoreen arabera. Esparru hori lortzeko, eskualde bakoitzeko biztanleria zuzenbidekoa tipologia eta sektore bakoitzerako jasotzen diren koefizienteek biderkatuko da. Ezartze edo handitze berrien neurria zehazteko, horrela lortutako esparruari lehendik okupatutako edo baimendutako esparrua kenduko zaio.

Tipologiakako edo sektorekako esparru koefiziente gehienezkoak, zeintzuk baitira atenditu beharreko herritarren premien gaineko partaidetza portzentajeen adierazgarriak, honen ondorengo taulan ezartzen dira:

a) Elikagai saltokiak eta balioanitzak:

1.– 400 eta 999 metro koadro bitarteko saltokiak: 0,159 m²/biztanleko.

2.– 1.000 eta 2.499 metro koadro bitarteko saltokiak: 0,100 m²/biztanleko.

3.– 2.499 metro koadro baino gehiagoko saltokiak: 0,141 m²/biztanleko.

b) Esparru espezializatuak:

1.– Etxerako ekipamendutarakoak, besteak beste, etxerako produktuak, hornidurakoak, etxetresna elektrikoak eta etxerako ehun ekipamendua saltzekoak: 0,098 m²/biztanleko.

2.– Ekipamendu pertsonalekoak, besteak beste, arropak, oinetakoak eta osagarriak saltzekoak: 0,100 m²/biztanleko.

3.– Kiroletakoak, besteak beste, kirol materiala, kirol arropa, kirol oinetakoak eta osagarriak saltzekoak: 0,030 m²/biztanleko.

4.– Brikolajekoak, besteak beste, eraikuntzarako materialak, burdindegiko elementuak, eta lore-zaintza, osasun, iturgintza eta elektrizitate elementuak saltzekoak: 0,037 m²/biztanleko.

c) Gainerako esparru espezializatuak: 0,049 m²/biztanleko.

3.– Ezartzea edo handitzea beste estatu batzuekiko muga-igarobideak dituzten udalerrietan proiektatzen bada, saltoki komertzial handiaren bidez jendeari saltzeko beharko den gehienezko esparrua honela kalkulatu da: aurreko paragrafoan jasotako koefizienteak udalerriko zuzenbideko biztanleei aplikatuz eta 2,75ez biderkatuz, eskualdeko mugak kontuan hartu barik.

4.– Saltoki handien bidez jendeari saltzeko gehienezko esparrua agortuta dagoen eskualdeetan edo proiektatutako ezarpen horrekin agortzen bada, elikagai-saltoki handiak eta erabilera anitzetakoak ezartzeko baimena eman daiteke 0,100 m²/biztanleko esparruetan, betiere egoitzatarako lurzoru urbanizagarriko eremu homogeneoen eraikuntza garatzerakoan etxebizitza berri gehiago eraikitzen badira edo egon daudenak bereoneratzen badira (450 unitatetik gora).

Aurreko paragrafoaren aplikazioaren ondorioz sor daitezkeen saltokiak aipatu eraikitze-garapena izan den udalean kokatuko dira lehentasunez.

Kontuan izan beharreko biztanle kopurua eta eraiki edo bereoneratu beharreko etxebizitzak zehazterakoan, interbentzioa zilegitzen duen hirigintza planeamenduan aurreikusten dena beteko da.

5.– Saltoki handien bidezko jendaurreko salmentarako gehienezko esparrua agortuta eduki eta lehia librea distortsioak antzematen badira, lehiaren defentsarako organoak hala eskatuz, gehienez ere 2.500 m² arte zabalduko da salmenta esparru erabilgarria.

6.– Lehia librea bermatzeko eta banaketa sektorean baten bat beste batzuen gainetik jartzea ekiditeko, saltoki handietako jendaurreko salmenta esparrua baloratuko da, baldin eta eskatzailea zuzenean edo zeharka horien titularra bada dagokion eskualdean. Ondorio horietarako frankizia erregimeneko saltokien salmenta esparrua ere aintzat hartuko da, baldin eta horien gain eskatzaileak frankiziatzailearen egoera juridikoa badu, kontuan izanik kontratuaren berriazko ezaugarriak eta bai frankiziatzailearen eta frankiziatzailearen arteko kontratu-harremana.

II. KAPITULUA

LIZENTZIAK EMATEKO PROZEDURA.

6. artikulua.– Hasiera.

1.– Prozedura interesdunak eskatuta hasiko da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 70. artikuluan araututako araberako eskabidea egin ondoren.

2.– Eskabidea merkataritzan eskumena duen sailera zuzendu beharko da. Azaroaren 26ko 30/1992 Lege hartako 38.4 artikuluan jasotzen den edozein zentrotan aurkeztu ahal izango da eskaera.

3.– Eskabideekin batera aurkeztu beharko dira:

a) Dena delako ezarpen- edo handitze-eskabidea aurkezteko unean lurzoruaren titulartasuna edo eskuragarritasuna eta hirigintza-gaitasuna egiaztatzen duen dokumentua.

b) Sozietatearen estatutuak eta eratze eskritura eta Merkataritzako edo Kooperatibetako Erregistroko orriaren kopia osoa, baldin eta merkataritzako edo kooperatiben arloko sozietateak badira.

c) Azken hiru ekitaldietan Merkataritza Erregistroan ordaindutako urteko kontuen kopia. Ordainketa hori egin behar duten enpresek bakarrik aurkeztu beharko dute.

d) Ezarri edo handitu nahi den saltokiaren deskribapen xehekatua eta oinarritzko proiektua. Jarri beharrekoak dira erabiliko dituen ikurrak, kokalekua, eraikiko den azalera osoa, eta jendaurreko salmenta esparrua, 2. artikuluaaren arabera.

e) Komertzializatuko diren salgaien deskribapena, saltoki handiaren sektorea eta mota, bai ezarri edo handitu behar bada, bai jarduera aldatu behar bada.

f) Oinplanoen, akotatuak, aurretiko bisten eta ebakiduren planoen bi ale, kokagunearena eta aurreikusitako lur sail eta aparkalekuetarako sarbideenak, eskalak zehaztuz.

g) Proiektua gauzatzeko egutegia.

h) Euskal Autonomia Erkidegoan zuzenean edo zeharkako eskatzailea titularra deneko saltokien zerrenda, non, 5. artikuluko 6. paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, salmentarako 400 metro karratu baino gutxiago dituztenak eta beste batzuek ere –zeinekiko frankiziatzailearen egoera juridikoa duen– sartzen baitira. Azken kasu honetan kontratuaren kopia bat erantsiz.

i) Sortu asmo dituen lanpostuen kopurua eta izaera adierazi behar dira.

j) Ezarpena edo handitzea udaleko hiri-gune kontsolidatutik kanpo egin nahi bada, proiektatutako gunetik hiri-erdira arteko garraio-linea erabilgarrien berri eman beharko da.

4.– Eskatzaileak lizentzia eskatzen badu, eta eskatzen duen esparrua aukeratutako sektore eta establezimendu motarentzako eskualdean erabilgarri dagoen jendearentzako salmenta esparrua baino handiagoa bada, merkataritza gaietan aginpidea duen Sailak ebazpen bat emango du. Ebazpenean xehetasun hori adieraziko da, doakionak, gehienez ere bi hilabeteko epean, eskabidea erabilgarri dagoen azalera egoki dezan.

7. artikulua.– Instrukzioa.

1.– Administrazio prozedurako instrukzioa, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) 70. artikuluan araututakoari jarraituz egingo da.

2.– Lizentzia eskabideari buruz loteslea ez den txostena egingo du merkataritzagune handia proiektatuta dagoen udalerriko Udalak. Udal horrek bi hilabeteko epean egin beharko du txostena, eta maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jardueraren Legea, azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatua) 13. artikuluko 5. paragrafoan araututako irizpideen arabera, udalari dagozkion aginpideak kontuan hartuta egingo du.

3.– Era berean, lehiaren defentsa arloan eskumena duen organoak ere lizentzia eskabidearen gaineko txosten ez loteslea egingo du bi hilabeteko epean.

Txosten horrek gerta daitezkeen domeinuko egoerak aztertuko ditu batik bat, jarrera nagusiaren eraginezko gehiegikeriak ekiditeko eta enpresen arteko lehia librea sustatzeko.

4.– Jardundako guztiaren kontu emango zaio 10. artikuluan araututako Merkataritzagune Handietarako Batzordeari, bi hilabeteko epean artikuluko horretako 3. paragrafoko a) idatz-zatian adierazitako txostena eman dezan.

8. artikulua.– Ebazpena.

1.– Maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jardueraren Legea, azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatua) 13. artikuluko 7. paragrafoan xedatutakoei jarraiki egingo da eta jakinara-ziko da eskatutako lizentzia onartzeko edo ukatzeko ebazpena.

2.– Ebazpena arrazoitua izan behar da. Lizentziaz baliatzeko baldintza gisa, dekretu honetako 5. artikuluan jasotako irizpideei jarraituz, zenbait betebeharrak ezarri ahal izango dira ebazpenean; eta, betiere, ematen den lizentziaren bidez jarduera gehienez zenbateko epean hasi behar den adieraziko du. Epe hori ez da bi urtekoa baino gehiagokoa izango, hirigintza lizentzia ematen denetik kontatzen hasita, non eta ez bada epea luzatzen bat-bateko edo halabeharrezko egoera dela-eta.

9. artikulua.– Merkataritzagune handi baterako lizentziaren tasa.

Merkataritzagune handiak ezartzeko lizentziaren tasa, merkataritzaguneak handitzeko lizentziarena edo merkataritzaguneetako jarduera aldatzeko lizentziarena, Azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko (Merkataritza Jarduerarena) 13. artikuluko 8. paragrafoan, eta Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutakoei jarraiki eskatuko da.

III. KAPITULUA

MERKATARITZAGUNE HANDIETARAKO BATZORDEA

10. artikulua.– Merkataritzagune Handietarako Batzordea.

1.– Merkataritzagune Handietarako Batzordea sortzen da.

2.– Merkataritzagune Handietarako Batzordea honako hauek osatzen dute:

a) Merkataritza arloan eginkizunak eskuratuta dituen Sailburuordetzako titularra, zeina lehen-dakaria izango baita.

b) Merkataritzako arloan eginkizunak eskuratuta dituen Zuzendaritzako titularra.

c) Batzordekide bat: EUDELeke ordezkari gisa jardungo du eta EUDELeke organo aginpidedunek izendatuko dute.

d) Batzordekide bat: hala dagokionean, jarduera ezartzea, handitzea edo aldatzea nahi duen Udalaren ordezkari gisa jardungo duena. Udal horretako organo aginpidedunak izendatuko du.

e) Batzordekide bat, Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganberek izendatua.

f) Batzordekide bat: Merkataritzaren Enpresa Elkarten ordezkari gisa jardungo du, eta elkarte horietako organo aginpidedunek izendatuko dute.

g) Batzordekide bat: Banaketa Enpresa Handien Elkarteko ordezkari gisa jardungo du, eta elkarte horretako organo aginpidedunek izendatuko du.

h) Batzordekide bat: Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu garrantzitsuenen ordezkari gisa jardungo du, eta sindikatuko organo aginpidedunek izendatuko dute.

i) Batzordekide bat: Kontsumitzaileen Federazioaren ordezkari gisa jardungo du, eta Federazio organo aginpidedunek izendatuko dute.

j) Batzordekide bat, banaketako enpresa ertainetan ordezkaririk gehien dituen elkartearen ordezkaria izango dena eta organo eskumendunek izendatua.

k) Hiri Merkataritzako plataformen ordezkaria izango den batzordekidea.

3.– Merkataritzagune Handietarako Batzordeko betebeharrak honakoak izango dira:

a) Merkataritza arloan eskumena duen Saileko dagokion organoak errekerimendua egin eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Dekretu honetako I. eranskinean jasotako eskualdeetan merkataritzak eta banaketak bizi duten egoerari buruzko berariazko txostenak gertatzea.

b) Merkataritza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari proposatzea merkataritza motaren eta sektoreen araberako eskualdeen parte-hartzearen ehunekoak aldatzeko, hala dagokionean.

c) Oro har, merkataritzagune handiak irekitzeko behar den berariazko merkataritza lizentziaren ordenamenduari dagozkion proposamenak egitea.

IV. KAPITULUA

IRAUNGITZEA ETA ALDATZEA

11. artikulua.– Iraungitzea eta aldatzea.

1.– Emandako merkataritza lizentziak iraungi edo indarrrik gabe geratuko dira, baldin eta betebeharrak betetzen ez badira.

Merkataritza lizentziak iraungi egingo dira, halaber, ematen direnetik bi urte igaro ondoren ez bada egiaztatzen obretarako, jarduerarako edo irekitzeko udal-lizentziak edo gura den ezarpen edo hedapenerako behar den beste edozein lizentzia –administrazio publikoak emandakoa bada– eskuratu direla.

Obrak eman eta urte bi igaro ostean obrak oraindik hasi gabe daudenean ere iraungi egingo dira lizentziak, non eta bat-bateko edo halabeharrezko arrazoiak ez dauden.

2.– Saltoki handietarako lizentziak iraungitzeko edo ezeztatzeko ebazpenak edo, hala dagokionean, baldintzak aldatzeagatik emandako lizentziak aldatzeko ebazpenak, aldez aurretik administrazio bidetik onartu beharko dira. Prozedura horretan, lizentzien titularrei, bai eta egon daitezkeen gainerako interesdunei ere, audientzia eman beharko zaie. Administrazio aginpidedunak lehiaren defentsarako organo aginpidedunak emandako txostena eskatu ahal izango du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.– Udalek merkataritza arloko sail aginpidedunari merkataritzagune berriak ezartzeko hirigintzako lizentzien eskabideak aurkeztu beharko dizkiote, bai eta txikizkako saltokiak handitzeko lizentzien eskabideak ere, baldin eta sortzen den azalera lauhun metro koadro baino gehiagokoa bada. Lizentzia merkataritzagunea handitzeko eskatzen denean, aldez aurretik gune horrek duen azalera kontuan hartu beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.– Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko martxoaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

I. ERANSKINA / ANEXO I

ESKUALDEAK / COMARCAS

ESKUALDEAK / COMARCAS

I. ESKUALDEA / COMARCA

UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Arabako Lautada / Llanada Alavesa

Alegría-Dulantzi

Arrazua-Ubarrundia

Asparrena

Barrundia

Elburgo / Burgelu

Iruña Oka / Iruña de Oca

Iruzaiz-Gauna

Agurain / Salvatierra

Donemiliaga / San Millán

Vitoria-Gasteiz

Zalduondo

Gorbeibarrena / Estribaciones del Gorbea

Legutiano

Urkabustaiz

Zigoitia

Zuia

Arabako Ibarrak / Valles Alaveses

Armiñón

Añana

Berantevilla

Kuartango

Lantarón

Ribera Alta

Erribera Beitia / Ribera Baja

Valdegovía

Zambrana

II. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa

Amurrio

Artziniega

Aiara / Ayala

Llodio

Okondo

*Orduña

III. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Arabako Errioxa / Rioja Alavesa

Mañueta / Baños de Ebro

Elciego

Bilar / Elvillar

Kripan

Labastida

Laguardia

Lantziego / Lanciego

Lapuebla de Labarca

Leza

Moreda de Álava

Navaridas

Oion-Oyón

Samaniego

Eskuernaga / Villabuena de Álava

Yécora

Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa

Arraia-Maeztu

Bernedo

Kanpezu / Campezo

Harana / Valle de Arana

Lagrán

Peñacerrada-Urizaharra

IV. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Ezkerraldea / Margen Izquierda

Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena

Alonsotegi

Barakaldo

Muskiz

Ortuella

Portugalete

Santurtzi

Sestao

Valle de Trápaga-Trapagaran

Zierbena

V. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Eskumaldea / Margen Derecha

Berango

Erandio

Getxo

Leioa

VI. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Bilbao eta Txoriherri / Bilbao y Txoriherri

Bilbao

Derio

Larrabetzu

Lezama

Loiu

Sondika

Zamudio

VII. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Ibaizabal

Arrigorriaga

Basauri

Etxebarri D.E/ Etxebarri, Ant.S.Est

Galdakao

Zaratamo

VIII. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Durungaldea / Duranguesado

Abadiño

Amorebieta-Etxano

Atxondo

Bedia

Bérriz

Durango

Elorrio

Garay

Iurreta

Izurza

Lemoa

Mallabia

Mañaria

IX. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Gernika-Bermeo

Ajangiz
Arratzu
Bermeo
Busturia
Ea
Elantxobe
Ereño
Errigoiti
Forua
Gaategiz Arteaga
Gernika-Lumo
Ibarrangelu
Kortezubi
Mendata
Morga
Mundaka
Murueta
Muxika
Nabarniz
Sukarrieta

X. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Plentzia-Mungia

Arrieta
Bakio
Barrika
Fruiz
Gamiz-Fika

Gatika
Górliz
Laukiz
Lemoiz
Maruri-Jatabe
Meñaka
Mungia
Plentzia
Sopelana
Urdúliz

XI. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Enkarterri / Encartaciones

Arcentales
Balmaseda
Carranza
Galdames
Gordexola
Güeñes
Lanestosa
Sopuerta
Trucios-Turtzioz
Zalla

XII. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Markina-Ondarroa

Amoroto
Aulesti
Berriatua
Etxebarria
Guizaburuaga

Ispaster

Lekeitio

Markina-Xemein

Mendexa

Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz

Ondarroa

XIII. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión

Arakaldo

Arantzazu

Areatza

Arrankudiaga

Artea

Dima

Igorre

Orozko

Otxandio

Ubide

Ugao-Miraballes

Zeanuri

Zeberio

XIV. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Donostialdea / Donostia-San Sebastián

Andoain

Astigarraga

Donostia-San Sebastián

Hernani

Lasarte-Oria

Lezo

Oiartzun

*Orio

Pasaia

Errenteria

Urnieta

Usurbil

XV. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa

Hondarribia

Irun

XVI. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Goierni

Altzaga

Arama

Ataun

Beasain

Ezkio-Itsaso

Gabiria

Gaintza

Idiazabal

Itsasondo

Lazkao

Legazpi

*Legorreta

Mutiloa

Olaberría

Ordizia

Ormaiztegi

Segura

Urretxu

Zaldibia

Zegama

Zerain

Zumarraga

XVII. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Urola Kosta / Urola Costa

Aia

Aizarnazabal

Azkoitia

Azpeitia

Beizama

Errezil

Getaria

Zarautz

Zestoa

Zumaia

XVIII. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Debagoiena / Alto Deba

Antzuola

*Aramaio

Aretxabaleta

Arrasate / Mondragón

Bergara

Elgeta

Eskoriatza

Leintz-Gatzaga

Oñati

XIX. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Debabarrena / Bajo Deba

Deba

Eibar

Elgoibar

*Ermua

Mendaro

Mutriku

Soraluze-Placencia de las Armas

*Zaldibar

XX. ESKUALDEA / COMARCA UDALERRIAK / MUNICIPIOS

Tolosaldea / Tolosa

Abaltzisketa

Aduna

Albiztur

Alegia

Alkiza

Altzo

Amezketeta

Anoeta

Asteasu

Baliarrain

Belauntza

Berastegi

Berrobi

Bidegoyan

Elduain

Gaztelu

Hernialde

Ibarra

Ikaztegieta

Irura

Larraul

Leaburu

Lizartza

Orendain

Orexa

Tolosa

Villabona

Zizurkil

* Beste eskualderen bateko udalerrak sartu dira.

* Inclusiones de municipios de otras comarcas.